

SUESKOLA FUNDAZIOA

Mantentze-lanetako laguntzaile baten kontratazio prozesua.

Sueskola Fundazioa sektore publikoko fundazioa da 2017ko urtarrilaren 1az geroztik (Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Araua, zortzigarren xedapen gehigarria; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legea, 64.2 artikulua); eta, beraz, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak errespetatu eta bete beharko dira langileak hautatzeko prozesuetan (64.3 artikulua).

Gainera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 70. artikuluan jasotako printzipioak ere bete beharko dira, fundazioaren izaerarekin bateragarriak diren neurrian

Deialdia eta hautaketa-prozesua arautzeko oinarriak:

1. oinarria.- Xedea.

Sueskola Fundazioko langileen plantillan hutsik dagoen mantentze-lanetako laguntzaile lanpostua **langile lan-kontratadun finkoaren bidez** betetzeko hautaketa-prozesua eta deialdia arautzea da oinarri hauen xedea.

2. oinarria.- Bete beharreko lanpostuaren ezaugarriak.

Lanpostuaren izena: Mantentze-lanetako laguntzailea

Talde profesionala: VI. TALDEA: ASKOTARIKO LANBIDEAK

Eginkizunak: Deialdiko lanpostuei dagozkien eginkizunak, orientazio eta azalpen gisa, honako hauek dira:

- Sueskolako azpiegituretan behar diren konponketa-lanetan laguntzea.
- Instalazioen mantentze-, pintatze- eta txukuntze-lanak egitea.
- Belarra moztea, hostoak kendu eta egurrak moztea moto zerra erabiliz.
- Garbiketa-lanak egitea eskuz nahiz makinaz
- Erabiltzen den materialaren mantentze- eta garbiketa-lan orokorra egitea.
- Ibilgailua erabiltzea. Materialak mugitzea, kargatzea eta deskargatzea.

Lantokia: Fundazioak Ordizian duen egoitza.

Lanaldia: %100. Lanpostuaren dedikazio araubidea lanaldi osokoa da eta beti bat etorriko da zerbitzuaren izaera eta behar zehatzekin; hau da, goizez zein arratsaldez eman ahalko da.

Euskararen ezagutza maila: B1B2 (B1, irakurmen eta idazmenean; B2, entzumen eta mintzamenean).

3. oinarria.- Parte hartzeko baldintzak.

a) Hamasei urte beteta izatea eta erretiro arrunta hartzeko lege ezarritako gehieneko adinetik gorakoa ez izatea.

b) Behar besteko gaitasun funtzionala izatea lanpostuak berezkoak dituen funtzioak betetzeko, eragotzi gabe aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina aplikatzea, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa. Bere garaian egiaztatu beharko da eskakizun hori betetzen dela dagozkion hautaketa-probak gaindituz.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulazioa, Eskola Graduatua edo baliokidea izatea.

d) B motako gida-baimena indarrean izatea.

e) Lanpostuak esleituta duen euskararen ezagutza maila (B1B2) egiaztatze aldera, Maizpide Euskaltea arduratuko da beharrezko frogak egiteaz.

Baldintza horiek guztiak (euskararen ezagutzarena izan ezik) bete beharko dira eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datarako.

4. oinarria.- Hautaketa-prozesua.

Eskabidea aurkeztean, hautagaiak onartu egiten ditu deialdiaren oinarriak.

Hautaketa-prozesuan zehar gorabehera edo kontsultarik izatekotan, hautagaiak harremanetan jar daitezke kontsulta-kanal honekin: **sueskola@lksnext.com**.

Hautaketa-prozesuak **6 fase** izango ditu:

1. Hautagaitzak onartzea
2. Talde-proba
3. Elkarrizketa
4. Euskara proba
5. Proba praktikoa
6. Elkarrizketa hautaketa-organoarekin.

1.FASEA: Hautagaitzak onartzea

Hautagaitzak aurkezteko epea amaitu eta hamar eguneko epean, onartu eta baztertutako hautagaitzen behin-behineko zerrendak argitaratuko dira. Akats zuzengarriak zuzentzeko eskabideak aurkezteko epea 3 egun baliodunekoa izango da, behin-behineko zerrendak argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita. Behin betiko zerrendak 5 egun balioduneko epean argitaratuko dira, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Zerrendetan pertsonen NANaren azken 4 zenbakiak eta letra jasoko dira, eta Sueskolaren eta kanpoko aholkularitza-enpresaren webgunean argitaratuko dira.

Sartzeko betekizunak urratzeagatik behin betiko baztertutako pertsonen zerrenda eta baztertzeo arrazoia interesdunei jakinaraziko zaizkie, eskabideetan adierazitako helbide elektronikoaren bidez.

Baztertu egingo dira osatu gabeko eskabideak, epez kanpo jasotakoak eta beste edozein modutan jasotakoak. Halaber, baztertu egingo dira oinarrietan eskatutako betekizunak betetzen ez dituzten hautagaiak.

2.FASEA: Talde proba

Langileak aukeratzeko erabiltzen den ebaluazio sistema da.

Honen bidez, hautagaiak elkarrekintzan jarriko dira beraien konpetentzia pertsonalak neurtzeko helburuarekin. Baloratuko diren konpetentziak lanpostua modu egokian betetzeko egokitzat jotzen diren ondorengoak izango dira:

1. Ekimena eta proaktibitatea
2. Autonomía
3. Talde lanean aritzeko gaitasuna
4. Energia maila
5. Heldutasuna
6. Antolatzeko gaitasuna

Gehieneko puntuazioa 15 puntu. Baztertzalea izango da eta puntuen erdia (7,5) lortu beharko da hurrengo fasera pasatzeko.

3.FASEA: Elkarrizketa

Gaitasun-elkarrizketa egituratua: elkarrizketa bakarra egingo da hainbat blokerekin, horretarako kontratatutako kanpoko aholkularitza-enpresaren bitartez. Jarraitu beharreko eredia gaitasun-elkarrizketa egituratua izango da. Elkarrizketa-fase honetan, hainbat gaitasun baloratuko dira, gehienez ere 40 punturekin. Modu zehatzean ebaluatu eta diskriminatuko da elkarrizketatutako hautagaiak lanpostua betetzeko ezaugarriak, trebetasunak eta portaerak behar bezala betetzen dituzten.

Elkarrizketa horietan honako gaitasun eta faktore hauek neurtzen dira 3 maila (oinarrizkoa, ertaina eta altua) dituen eskala batean, 1etik 9ra bitarteko puntuazioarekin. Gaitasun guztiek pisu erlatibo berdina izango dute. Puntuazio osoa 40 puntukoa da. Baztertzalea izango da eta puntuen erdia (20) lortu beharko da hurrengo fasera pasatzeko.

Gaitasun hauek ebaluatuko dira:

1. Komunikatzeko gaitasuna eta asertibitatea
2. Emozioen kudeaketa/heldutasuna
3. Antolatzeko gaitasuna (ordena, plangintza, antolaketa)
4. Ekimena eta proaktibitatea
5. Arazoak konpontzeko gaitasuna eta autonomia

4.FASEA: Euskara proba

Euskara-probak nahitaezkoak eta baztertzaleak izango dira lanpostu honetan jarduteko eskatutako mailaren egiaztagiri edo titulu ofizialik aurkezten ez duten hautagaientzat. Proba horien bidez, hizkuntzen ezagutza finkatu eta egiaztatuko da, dagokion mailan.

Euskara probak Maizpide euskaltegiak burutuko ditu.

Hizkuntza-probak "gai" edo "ez-gai" gisa kalifikatuko dira.

5.FASEA: Proba praktikoa

Lanpostuko eginkizunekin lotutako ariketa praktikoak egingo dira.

Ariketa horietan gehienez 25 puntu emango dira, eta gutxienez 12,5 puntu lortu beharko dira gainditu ahal izateko.

6.FASEA: Elkarrizketa hautaketa-organoarekin.

Kanpoko aholkularitza-enpresak dinamizatutako elkarrizketa izango da, non parte hartuko duen SUESKOLAk izendatutako batzorde espezifiko batek. Elkarrizketan, erakundera eta lanpostura egokitzeko hautagaien gaitasuna ebaluatuko da

Gehieneko puntuazioa 20 puntu. Puntuen erdia (10) lortu beharko da hautaketa-prozesua gainditu ahal izateko.

Gaitasun hauek baloratuko dira:

- Malgutasuna
- Polibalentzia
- Postuarekiko motibazioa
- Erakundera egokitzeko gaitasuna
- Lanpostuarekin lotutako ezagutza teknikoak

Gaitasuna 3 maila (oinarrizkoa, ertaina eta altua) dituen eskala batean neurtzen dira. Gaitasun guztiek pisu erlatibo berdina izango dute.

Hautaketa-organoak txostena egingo du hautaketa-prozesuaren emaitzari buruz, probetan jasotako puntuazioaren arabeko ordena jarraituz.

5. oinarria.- Hautaketa-organoa.

Hautaketa-organoa Sueskolako Mantentze-lanen Arduradunak, Ikasketa Buruak eta Zuzendariak osatuko dute.

6. oinarria.- Eskaera: aurkeztu beharreko dokumentazioa eta epea.

Eskaerak aurkezteko epea **2024ko urriaren 21ean hasi eta 2024ko urriaren 31an** amaituko da.

Hautaketa-prozesuan aurkezten diren hautagaiek, gutxienez, honako dokumentazio hau bidali beharko dute:

1. Curriculumama
2. NANaren, AIZaren edo pasaportearen fotokopia (hala badagokio, lan-baimenarekin batera).
3. Curriculumean aurkeztutako titulazioen ziurtagiriak (titulazio akademikoa eta hizkuntzak, eskatuz gero).
4. Euskara-mailaren ziurtagiri edo egiaztagiria, izatekotan.
5. Lan-bitzaren txostena.

Dokumentazioa posta elektronikoz bidez aurkeztuko da, **sueskola@lksnext.com** helbidean, oinarri hauekin batera argitaratutako lanpostuari dagokion erreferentzia adierazita.

Hautagai guztiek helbide elektronikoz bat izan eta eman beharko dute, aholkularitza-entresak prozesuarekin lotutako argitalpen berrien jakinarazpenak egin ditzan.

7. oinarria.- Probaldia eta langile lan-kontratudun finkoaren kontratazioa.

Kontratutako pertsonari lan-kontratu finkoa egingo zaio eta 6 hilabeteko probaldi epe bat izango du.

Hautatutako hautagaia lanean hasiko da fundazioan, eta haren araudia errespetatuko du.

Lanpostuaren probaldian Sueskola arduratuko da hautaketa-prozesu honetan kontratatutako langilearen lanaren jarraipena egiteaz. Jarduna egokia bada, probaldia gaituztat joko da; eta, hala ez bada, justifikazio-txosten batean azalduko zaizkio langileari probaldia ez gaituztat jotzeko arrazoiak eta entzunaldia emango zaio azken erabakia hartu aurretik.

8. oinarria.- Lan-poltsa sortzeko aukera.

Hautaketa-prozesua bere osotasunean gaituztu baina lehen postua lortu ez duten hautagaiekin lan-poltsa bat eratuko da lortutako puntuazioaren ordena jarraituz.

Lan-poltsa hori aldi baterako lanpostuak betetzeko erabiliko da.

Behin betiko sailkapen-ordena finkatzeko, hautaketa-prozesuko faktoreen analisisian lortutako puntuak batuko dira, eta horrek finkatuko du lehentasun-ordena.

9. oinarria.- Hautaketa-prozesuaren publizitatea

Hautaketa-prozesuaren ondoriozko komunikazio eta jakinarazpenak korreo elektronikoz bidez egingo dira.

Era berean, Sueskolaren webgunean (<https://www.sueskola.eus/eu/lan-eskaintzak>) argitaratuko dira; eta, dagokionean, kanpoko aholkularitza-entresaren webgunean (<https://lksnextselection.com/eu> Lan eskaintzen Links. "Eskaintza Publikoak eta ebazpenen argitalpenak" atalean), ere bai.